


# ZEBARRI

2010eko  
uda

etxebarriko euskaltegioko ikasleek egina

## ZEBARRI BARRI BERRI



**ULIBARRI**  
EUSKALTEGIA



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Bata  
Departamento de Cultura



UDAOLA  
AYUNTAMIENTO

## ZEBARRI BARRI BERRI

Haize berria behar zuen gure aldi-zkariak eta haize horrek estiloa, tamaina eta beste hainbat gauza aldatu dizkio. Atal berriak eta irudi berria du orain. Zenbait informazio interesgarri gehitu nahi izan dugu, internet helbide interesgarriak, kultur gomendioak eta Euskal Herria ezagutzeko beste gomendio batzuk.

Banaketa modua ere aldatu dugu. Lehen Etxebarriko etxe guztietara iristen bazen ere, orain euskaltegiko ikasle zareten edota izan zaretenok jasoko duzue Zebarrri.

Euskaltegiko ikasle izan ez direnek

ohiko lekuetan lortu ahal izango dute Zebarrri; udaletxean, liburategietan, kultur etxean...

Hala ere, euskaltegitik inoiz pasatu ez bazara eta hemendik aurrera aldizkaria etxean eskuratu nahi baduzu beheko kupoia bete eta ekarri euskaltegira edo postaz bidali. Beste modu bat ere badago aldizkaria lortzeko, posta elektronikoa bat bidalita [etxebarri@euskalnet.net](mailto:etxebarri@euskalnet.net) helbidera datuak eta helbidea adierazita.

Jakina, doakoa da aldizkaria jasotzea.

### Zebarrri aldizkaria etxean jaso nahi dut doan

Izen abizenak

Helbidea

Posta elektronikoa

Bekosolo parkea z/g  
PK: 48450 Tel: 944262802  
[etxebarri@euskalnet.net](mailto:etxebarri@euskalnet.net)

# AURKIBIDEA

- Olerkari bat euskaltegian .....	4
- Casimira, Etxebarriko euskararen bilakaeraren lekuko 100 urtez .....	7
- Bilboko erreproduzio artistikoen museoa .....	8
- Norbaitek egin zuen hegari KU-KU tailerraren kabiaren gainean .....	9

## Bizkaieraren txokoa

- San Juan Sua .....	10
- Julian Iantzi, Etxebarri euskalduntzen laguntzen .....	12
- Santa Marina GOITIK etorbidean BEHERA .....	13
- Urteko argazki bilduma .....	15

## Kultur gomendioak

- Euskal musika .....	17
- Euskal zinema eta literatura .....	18
- Internet ataria .....	19
- Euskaltzaindiaren arauak .....	20
- Etxebarritik Euskal Herrira .....	21
- Udako menu bat .....	23
- Horoskopoa .....	25
- Denbora-pasak .....	27

*Zebarri aldizkaria honako erakundeei esker gauzatu da:*



**YLIBARRI**  
EVSKALTEGIA




Bizkaierako Foru Aldizkaria  
Diputación Foral de Bizkaia

Kultura  
Saila  
Departamentu  
de Cultura



# Olerkari bat Euskaltegian



Almodena Fernandez Santos euskaltegian ikasten ari den olerkaria dugu. Herritarrontzat ezezaguna den arren, bere bigarren olerki liburu argitaratu berri du joan den astean, maiatzaren 11n hain zuzen ere. Lehenengo olerki liburuaren izenburua "Sangrando Poemas" (Olerkiak odolusten) izan da eta bigarrenaren izenburua "Poemas arbolados" (Zuhaiztutako olerkiak). Lehenengo liburuan, bere burua biluztu zuen eta bigarrean, zuhaitzen eta sentimenduen arteko nahastearekin jolas egin du. Gure ikaskidea hobeto ezagutzeko elkarrizketatxo bat egin diogu euskaltegiko ikaskideok.

## Noiz hasi zinen olerkiak idazten, Almodena?

Txikitan nire ahizpak Gloria Fuertesen liburu bat zeukan eta ni irakurtzen hasi nintzen. Neukan liburu bakarra zen eta bukatuko zelako beldurrez irakurtzen nuen. Orduan hasi nintzen nire gauzatxoak idazten. Gaur egun ez daukat inspirazio oinarririk, zerbait kontatzeko beharra daukadanean bakarrik ateratzen zait.

## Zergatik erabaki duzu liburu bat idaztea?

Idazten dudana, kaxoi batean gordetzen dut paper artean eta hauek ez galtzeko beldurrez, liburu batean islatzea bururatu zitzaidan.

## Zenbat denbora behar izaten duzu

## liburu bat idazteko?

Ez da denbora kontua. Prozesu luzea da, ez dauka hasiera ez amaierarik, gauzak hemendik eta handik ditut eta azkenean batu egiten ditut. Ez dago ordutegirik, horretan jartzen zarenean jarri eta kitto. Nik ez daukat kontraturik, bakarrik doa.

## Nola joan dira lehenengo liburuen salmentak?

Nik pentsatu baino hobeto.

## Bateragarriak dira familia eta idazle bizitza?

Lan guztietan bezala zaila da. Ondo antolatzea da asuntoa eta inoiz ez da erraza. Goizean goiz altxatzen naiz, logureari denbora kentzen diot eta goizetan hobeto idazten dut.

## Olerkari bat Euskaltegian

### **Zein idazle hartu duzu iturritzat?**

Hainbat dira baina batzuk aipatzearren; Mario Benedetti, Pablo Neruda, Gioconda Belli, Clara Janès, Alejandra Pizarnik...

### **Nork lagundu zizun liburua argitaratzen?**

Lehenengoz, Avelino ezagutu nuen. Avelino etxebarritar olerkari bat da eta berak ere liburu bat argitaratua du. Oso gizon jatorra da eta bere etxera joan nintzen nire olerkiak besapean neramatzala. Berak esan zidan nondik nora jo behar nuen. Bigarrenez, "Ediciones Beta" argitaletxea.

### **Olerkigintzaz gain, jorratu al duzu beste alorren bat?**

Kontaketa Laburra, ipuintxoak, istorio laburrak eta abar. Batzuetan asmatuak eta besteetan benetakoa. Nahiz eta asmatuak izan, beti daramate norberaren kutsua.

### **Zeri buruz idazten duzu?**

Eguneroko gauzei buruz, gauza arruntei buruz, hau da, bizitzari buruz. Nik nahi dudana da, irakurlea bere burua nire poemetan islatuta ikustea. Hasieran ez dituzu poemak erakutsi nahi baina gero, besteekin konpartitu nahi dituzu. Lehenengo liburuarekin hori gertatu zitzaidan.



## Olerkari bat Euskaltegian

### Idazteaz aparte, baduzu beste zaletasunik?

Guztiok ditugunak gutxi gorabehera baina marraztea asko gustatuko litzaidake. Noizbait behar bada egingo dut...kar, kar, kar...


### Pentsatu duzu euskaraz idaztea?

Hori oso zaila da niretzat euskara ez baita nire amahizkuntza. Dena den, Unai Elorriagak esaten du berak ez liokeela beste bati utziko berak idatzitakoa itzultzen. Ni ados nago berak esandakoarekin, hizkuntza oso ondo menperatzeaz

gain, zaila delako pertsona baten buruan egotea eta bere sentipenak itzultzea, poemak nire barrena dira nola itzul liteke horrelako zerbait? baina nork daki!! momentuz ikasten ari naiz eta batek daki!! kar, kar, kar...

### Hirugarren liburua prestatzen ari al zara?

Bai, badauzkat gauza txoak...baliteke istorio laburrak izatea, zerbait berria idaztea gustatuko litzaidake, orain arte egin ez dudana zerbait.



Poema txiki honek hasiera ematen dio "Poemas arbolados" liburuari. Zuhaitzen barrenean paseo bat ematera gonbidatzen zaitu poesiaren bidez, haien magiarekin eta misterioarekin bat egiteko.

# CASIMIRA ETXEBARRIKO EUSKARAREN BILAKAERAREN LEKUKO 100 URTEZ

*Joan den martxoaren 4an, Casimirak 100 urte bete zituen. Etxebarritarra dugu, bertan jaio eta bizitakoa, Kukuiaga auzoko baserri batean jaio zen, hain zuzen ere. Gaur egun, errepide nagusia besterik ez da igarotzen bertatik.*



Gaztea zenean, Etxebarriko bizimodua bestelakoa zen; baserriko eginbeharrak ziren jendearentzat zeregin nagusi. Hala nola, Casimira oinez joaten zen egunera Bilbora baserriko esnea saltzera. Hau bai hau lan gogorra!

Casimiraren esanetan, eskualde hau euskaraz mintzo zen bere gazte garaietan. Berak gurasoengandik jaso zuen ama-hizkuntza izan zen, funtsezko komunikazio tresna herritarren artean. Esan beharra dago zonalde honetan euskara denboran zehar galdu bada ere, Casimirak oraindik ere badarabilela. Berak tradizioa mantendu nahi izan du beti, eta horretarako bere seme-alabei euskaraz aritzen zaie. Denborak eta herrian euskarak izandako bideak seme-alabek hizkuntza jabetzea oztopatu dute, ordea. Casi-

mirari izugarri gustatuko litzaioke txikitari ezagutu zuen Etxebarri euskalduna berreskuratzea.

Etxebarriko euskaltegitik omenaldia eskaini nahi diogu Casimirari, horretarako geurea den hizkuntza erabiliz. Emakume hau eredu dugu, jarraitu beharreko adibide. 100 urteko altxorra eskain diezagukeen emakumea da Casimira. Asko dugu ikasteko eta asko entzuteko, denon artean Etxebarri euskalduna berreskuratuz eta hark gozatu ahal izateko.

9. urratseko ikasleak



## BILBOKO ERREPRODUKZIO ARTISTIKOEN MUSEOA

Apirilaren 28an, hirugarren eta bosgarren urratseko Etxebarriko euskaltegiaren ikasleak eta irakasleak, Bilboko erreprodukzio artistikoen museora joan gara. Estatuko Berreginen museo bakarra da eta Europako garrantzitsuena. Hara joateko Etxebarrin autobusa hartu dugu eta museora abiatu gara. Museo hau Mariaren Bihotza Elizan dago, San Frantzisko kalean. Museoak lau solairu dauzka.

Museoaren erreprodukzioen balioa, kopien kalitatean dago. Museo honetan besteak beste, ondoko piezak daude:

***Delfoseko Auriga,  
Kariatidea,  
Moises***

edo ***Lorentzo Medici,  
Samotrazioako Garaipena,  
Miloko Venusa*** eta abar,

guztiak eskaiolaz eginda daude eta perfektuak dira.

Museoa oso polita da eta hurbil dago joateko. Asko gustatu zaigu eta oso gustura egon gara, gidaria oso atsegina izan da eta. Berreginen historia bakoitzak azaldu dizkigu. Gure ustez oso komenigarria da hara joatea, anima zaitzte!

### **HELBIDEA:**

San Frantzisko kalea 14  
48003 Bilbao

### **ORDUTEGIA:**

Asteartetik Larunbatera:  
10etatik 13:30era eta 16etatik 20etara.  
Igandetan: 10etatik 14etara.  
Astelehen eta jai egunetan: Itxita.

### **TELEFONOA:**

94.679.02.55

[www.museoreproduccionesbilbao.org](http://www.museoreproduccionesbilbao.org)





# NORBAITEK EGIN ZUEN HEGAN, KU-KU TAILERRAREN KABIAREN GAINEAN



Joan den maiatzaren 6an umeeekin euskaraz egin eta jolasteko tailerra egin genuen. Euskaltegiko maila desberdinetako ikasleak egon ginen, eta hori dela-eta, primeran pasatu genuen. Jolas berri batzuk ikasi genituen eta iaiz ikasi genituenak berriro gogora ekartzeko baliatu genituen. Oraingo honetan ikasi genituen joko eta abesti berri bana azalduko dizuegu:

## Kanikaren jokoa:

Hitza:

Kanika txiki bat daukat,  
Saltoka eskutik eskura,  
Non ote da, non ote da?  
Non ote da nire kanika,  
kanika, kanika, kanikaaaa!



## Nola jolastu:

Umeak korroan jartzen dira eta ume batek (erdian) kanika bat eskuetan du eta eskutik eskura joaten da pasatzen (argazkian ikus daitekeen moduan). Haurrek eskuak bata bestearekin jarrita, besteen eskuen gainetik pasatzen da eta askatu behar du baten baten eskuetan. Amaitzen denean abestia, tokatzen denak asmatu behar du kanika nork duen. Proba ezazu zure umearekin!

Aparteko gauzak ere ikasi genituen, nola ez. Adibidez, nola umeei irakasten dizkiegun abestiak makabroak diren. Esan dezagun, agian ez direla umeentzako aproposenak. Zer deritzozue?

Din dan, nor hil da?  
Peru zapataria,  
Zer egin dau pekatu,  
auzoko txakurra urkatu.  
Hori ez badau egin  
beharko zaio  
par-ka-tu



Orduan, Peruk txakurra urkatu du eta hori bakarrik egin badu, barkatuko diogu. Hori marka, gero!

Joko eta abestia gustatu zitzaizkigun guri eta espero dugu zuek ere gustuko izatea eta zuen umeeekin erabiltzea. Gainera, heldu den urtean gurekin batera etortzera gonbidatuta zaudete.

# SAN JUAN SUA



San Juan eguna, edo gaua, hobeto esanda, jazoera magikoa dogu gure artean. Urteko egunik luzeena eta gaurik laburrena, solstizioa hain zuzen be, beti izan da euskaldunentzako egun berezia. Ospakizunak, gehienetan suagaz lotuta, ia gure inguruko herri guztietan egiten dira. Ganera, jakintsu askok azterketa ugari egin dabez ospakizun honeen ganean: Barandiaran, Caro Baroja... Gehienetan ospakizunak neguaren eta udearen arteko saltoan izaten dira, hau da, negu hotza, triste eta iluna ahaztu eta udeari merezi dauan harrerea egiteko. Bizi barri bateri aurre egiteko aukera moduan interpretetan da urteko sasoi hau.

San Juanak edo Donienak jatorkuzala eta, hurrengo lerroetan jai honen ganean dagozan hainbat istorio eta kontakizunen artean, Euskal Herriko herri desbardineta ohiturak aukeratu doguz. Holan ba, San Juanak atxakitzat hartuta, gure herrietatik osteratxua egingo dogu.

Bidaia Gipuzkoako Anoetan hasiko dogu. Hemen San Juan hirugarrenean arratsaldeko laurak aldera oilasko

jokoa ospatzeko ohiturea egoa Oilaskoakaz amaitu eta gero, muti aureskua egiten eben jantza

Salto egin eta Gorbeia mendiare inguruan, Arratiako bailaran dagoa Arantzazura joango gara. San Juan eguna baino pare bat egun lehenago loreak batu eta erramua egin ostean meza nagusira eroaten zira bedeinkatzeko. Kontetan dan lege Anbotoko Andreak aharia ostu eutsu artzain bateri. Artzaina, loreak hartu eta lagun bategaz batera, Anbotoko Dama bizi zan leize-zuloraino joan zan. Orduan, ahariagaz egoa Anbotoko Dama, eta amuletoa ikur ebanean, arrapaladan urten eban

Arraiotzen, barriz, San Juan ohiturea ekaitzetatik babesteko balio eban Holan, San Juan bezperan elor zuriaren adarrak ebagiten ziran eta San Juan lore, intxaur hosto eta garci erramua egiten zan. Erramu hau San Juan eguneko mezan bedeinkatzen zan eta kamaran ixten eben sikatzer Ekaitza egoanean, erramuko lorea eskukada bat hartu eta sutara botate zan. Gero, kandela bat bizten za ekaitza baretu arte. Antzeko egoerak Aia herrian honako konjurua botate eben bertoko Semeola baserrikoak "Izarraitzen karga, Ernion deskarga Altzolan gorde, en demas Semeola"

Ekaitzetatik babesteko asmoz Elduaienen, San Juan goizean lizarra edo gorosti adarrak hartu eta etxearen atearen alde bietan ipinten ziran Sikatzen ziranean, kendu egiter ebezan. Holan, etxea ekaitzetatik babestuta geratzen ei zan urte osorako

Barrero be Bizkaian, Zornotzan berbarako, herniak osatzeko balio eban santuaren bedeinkazioak. Horretarako, San Juan ermitearen inguruan egoan harestira eroan behar eben gaixoduna bere anaia bik. Orduan, bertoko arbola bateri erdian zuloa egin eta anaia batek besteari zulotik umea emoten eutson. Gero, azken honek zugatxaren kanpoko aldetik emoten eutson bueltan. Hori hiru bider egin behar zan, eta arboleak bizirik segiduten baeban, umea osatu egiten zan; bestela, arbolea hilez gero, gaixoa ez zan osatuko.


Salto egin eta Donostian kontetan ebena aitaturko dogu oraingoan, Pio Barojak berak idatzi baten batzen dauan kontakizun bat. Antza, San Juan gauaz uregaz betetako baso batean arrautza bat ipiniz gero, bela-ontzia ikusten ei da.

Beasainetik hur dagoan Amezketan, Euskal Herriko beste hainbat lekutan legez, San Juan bezperan sua biztu eta herritarrak haren ganetik salto egiten ahalegintzen ziran, "Biba San Juan Sua Biba" arrantza eginez. Labaienen, barriz, ohiturea bardina izanda be, gazteek "Sarna fuera, gaixtuk kanpora, onak barrenera" esaten eben. Iparraldean dagoan Saran, bidegurutze batean biztuten eben San Juan sua. Bertakoek, sua biztuta egoala, haren inguruan errosarioa errezetan eben. Euren ustez, holan eguzkiari urteten eta urte osoko ibilbidea egiten laguntzen eutsien.

Gipuzkoan oraindino, Tolosa aldean, Berastegin, San Juan jaia iragarteko, bezperatik hasten ziran kanpaiak jotzen.

Ordutik hasita, herriko gazteak soloetan txoriak bildurtzeko egoten diran mozorroak hartu eta San Juan sutara botaten ebezen gaean.


Oiartzunen, San Juan gaean, lastoa erretoko ohiturea euken, herriko sineskerearen arabera holan ebitetan ziralako soloetako urte osoko gaixo eta gatxak. Ohitura hau Zornotzan eta Larrabetzun be baegoan.



Azkenik, esan daigun Aurizberrin bedeinkatutako erramuagaz kurutzea egiten ebela. Kandelario egunean, kurutzeari hiru argizari gota bota eta soloan ipinten eben.

Horrexek ba, gure herrian San Juan egunagaz lotuta dagozan ohituretariko batzuk.

## Julian Iantzi, Etxebarri euskalduntzen laguntzen



Apirilaren azken aurreko astean Julian Iantzi telebistako aurkezlea izan zen Etxebarrin. Apirilaren 21ean, 22an eta 23an euskararen erabilerari buruzko hitzaldiak eman zituen herriko toki batzuetan. Euskaltegiko ikasleok martxoaren 22an San Antonioko kultur etxean eman zuten hitzaldia entzun genuen.

Julian Iantzi ETB2ko "El conquistador del fin del mundo" saioko aurkezlea da. "Vaya par", "Euskaldunak Ameriketara" eta "Basetxea" saiok ere aurkeztu ditu. "Jendeak gaztelaniazko programetatik ezagutzen nau, baina batez ere euskaraz egin dut

lan", esan zuen Julianek hitzaldiaren hasieran.

Hitzaldiak bi zati izan zituen. Batetik, euskararena. Bestetik, telebistaren gainekoa. 40 pertsona inguruk entzun zuten hitzaldia San Antonioko kultur etxean. Gehienak euskaltegiko ikasleak ginen. Hitzaldia euskaraz eman zuen Julianek, baina gaztelania ere tartekatu zuen.

Julian Ameriketako Estatu Batuetan jaio zen, Woodland-en (California) 1967an.

Bere gurasoak euskaldunak zirenez (aita artzaina zen), bertan ikasi zuen euskara. Zazpi urterekin etorri zen Nafarroara, Lesakara. Ingelesa eta euskara hitz egiten zituen Iantzik, baina gazteleraz ez. Orduan gaztelania ikasi zuen, eta euskara alde batera utzi zuen. Gurasoekin ere gaztelaniaz hitz egiten hasi zen.

Julian 30 urte baino gehiagorekin hasi zen euskara berriro ikasten Irunen (Gipuzkoa). Horretarako euskaltegira joan behar izan zuen. Hitzaldian esan zuenez, guk, euskaltegiko ikasleek, egindako prozesuaren aurkakoa da berea. Guk euskara ez dakigulako ikasten ari gara hizkuntza hori. Bera euskara berreskuratzeko joan zen euskaltegira.

Orduan, euskarazko prentsan murgildu zen Julian: Euskaldunon Egunkaria irakurtzen, Euskadi Irratia entzuten, ETB1 ikusten... Gure euskaltegiko ikasleei gauza bera egiteko esan zien.

Euskaltegiko ikasleei animoak eta aholkuak eman zizkien telebistako aurkezleak. Bere ustez garrantzitsua da euskara ikastea eta une guztietan praktikatzea. "Lehenengo euskarazko ziurtagiriak atera, HABEkoak eta EGA. Gero bizkaiera ikasi", esan zuen Julianek. Berarentzat garrantzitsua da guk ere, Etxebarriko ikasleok, bizkaiera ikastea. Bere ustez, gazteek ez badute mantentzen galdu egingo da bizkaiera.

Hitzaldiaren bigarren zatian, entzuleek "El conquistador del fin del mundo"ri buruzko galderak egin zizkieten.



Barriro be Bizkaian, Zornotzan berbarako, herniak osatzeko balio eban santuaren bedeinkazioak. Horretarako, San Juan ermitearen inguruan egoan harestira eroan behar eben gaixoduna bere anaia bik. Orduan, bertoko arbola bateri erdian zuloa egin eta anaia batek besteari zulotik umea emoten eutsen. Gero, azken honek zugatxaren kanpoko aldetik emoten eutsen bueltan. Hori hiru bider egin behar zan, eta arboleak bizirik segiduten baeban, umea osatu egiten zan; bestela, arbolea hilez gero, gaixoa ez zan osatuko.


Salto egin eta Donostian kontetan ebena aitaturko dogu oraingoan, Pio Barojak berak idatzi baten batzen dauan kontakizun bat. Antza, San Juan gauaz uregaz betetako baso batean arrautza bat ipiniz gero, bela-ontzia ikusten ei da.

Beasainetik hur dagoan Amezketan, Euskal Herriko beste hainbat lekutan legez, San Juan bezperan sua biztu eta herritarrak haren ganetik salto egiten ahalegintzen ziran, "Biba San Juan Sua Biba" arrantza eginez. Labaienen, barriz, ohiturea bardina izanda be, gazteek "Sarna fuera, gaixtuk kanpora, onak barrenera" esaten eben. Iparraldean dagoan Saran, bidegurutze batean biztuten eben San Juan sua. Bertakoek, sua biztuta egoala, haren inguruan errosarioa errezetan eben. Euren ustez, holan eguzkiari urtetan eta urte osoko ibilbidea egiten laguntzen eutsien.

Gipuzkoan oraindino, Tolosa aldean, Berastegin, San Juan jaia iragarteko, bezperatik hasten ziran kanpaiak jotzen.

Ordutik hasita, herriko gazteak soloetan txoriak bildurtzeko egoten diran mozorroak hartu eta San Juan sutara botaten ebezen gauean.

Oiartzunen, San Juan gauean, lastoa erretoko ohiturea eukene, herriko sineskerearen arabera holan ebitetan ziralako soloetako urte osoko gaixo eta gatxak. Ohitura hau Zornotzan eta Larrabetzun be baegoan.



Azkenik, esan daigun Aurizberrin bedeinkatutako erramuagaz kurutzea egiten ebela. Kandelario egunean, kurutzeari hiru argizari gota bota eta soloan ipinten eben.

Horrexek ba, gure herrian San Juan egunagaz lotuta dagozan ohituretariko batzuk.

# SANTA MARINA GOITIK ETORBIDEAN BEHERA

Beti kexatzen gara San Antonion aldapa asko dagoelako, baina aldapei esker daukagu Euskal Herriko goitibehera jaitsierarik onena.

San Antonioko jai guztietan gure tradizioa da goitibehera lasterketa. Hasieran jende askok parte hartzen zuen eta ia ia ez zegoen araurik (ez zen kaskorik eraman behar, balaztarik ere ez....). Herriko jendea zen parte hartzen zuena eta bakoitzak egiten zuen goitibehera bere kabuz.

Lehenago goitibeherak honela egiten ziren: lau taula hartzen ziren, hiru taula hiruki moduan josten ziren eta hiru errodamendu (edo gehiago) jartzen ziren azpian. Soberan geratzen zen beste taula bolante moduan erabiltzen, goitibehera gidatzeko.

Horixe zen oinarria. Horren gainean edozein

gauza jartzen zen apaintzeko edo handitzeko

Orain asko aldatu da kontua. Bai arauak, bai goitibeherak. Orain derrigorrezkoak dira kaskoa, balaztak, aseguruua eta abar. Federatzeko 40€ ordaindu behar da eta aseguruak 25 € balio du.

Batzuk, federatuta daudenak, hain zuzen ere, herri batetik bestera ibiltzen dira jaien garaian beren goitibeherekin. Jakina, orain modernoagoak dira eta material hobek erabiltzen dira. Esaterako, titanioa erabiltzen da oinarrirako, gaur egungo gurpilak ez dira errodamenduzkoak izaten, benetako gurpilak erabiltzen dira, gomazkoak, batzuek lasterketarako jantzi bereziak ere erabiltzen dituzte, kaskoak ere mota askotakoak izaten dira eta guztiz derrigorrezkoa da jantzita eramatea.



Santa Marina  
kaletik  
beheeeera

# SANTA MARINA GOITIK ETORBIDEAN BEHERA

Beti kexatzen gara San Antonion aldapa asko dagoelako, baina aldapei esker daukagu Euskal Herriko goitibehera jaitsierarik onena.

San Antonioko jai guztietan gure tradizioa da goitibehera lasterketa. Hasieran jende askok parte hartzen zuen eta ia ia ez zegoen araurik (ez zen kaskorik eraman behar, balaztarik ere ez....). Herriko jendea zen parte hartzen zuena eta bakoitzak egiten zuen goitibehera bere kabuz.

Lehen goitibeherak honela egiten ziren: lau taula hartzen ziren, hiru taula hiruki moduan josten ziren eta hiru errodamendu (edo gehiago) jartzen ziren azpian. Soberan geratzen zen beste taula bolante moduan erabiltzen, goitibehera gidatzeko.

Horixe zen oinarria. Horren gainean edozein

gauza jartzen zen apaintzeko edo handitzeko

Orain asko aldatu da kontua. Bai arauak, bai goitibeherak. Orain derrigorrezkoak dira kaskoa, balaztak, aseguruua eta abar. Federatzeko 40€ ordaindu behar da eta aseguruak 25 € balio du.

Batzuk, federatuta daudenak, hain zuzen ere, herri batetik bestera ibiltzen dira jaien garaian beren goitibeherekin. Jakina, orain modernoagoak dira eta material hobek erabiltzen dira. Esaterako, titanioa erabiltzen da oinarriarako, gaur egungo gurpilak ez dira errodamenduzkoak izaten, benetako gurpilak erabiltzen dira, gomazkoak, batzuek lasterketetarako jantzi bereziak ere erabiltzen dituzte, kaskoak ere mota askotakoak izaten dira eta guztiz derrigorrezkoa da jantzita eramatea.




Santa Marina  
kaletik  
beheeeera

## SANTA MARINA GOITIK ETORBIDEAN BEHERA



Etxebarriko lasteketa, ordea, ez da ia aldatu: Santa Marina kaletik irteten dira partehartzaileak. Hortik behera egiten dute eta Resbaloso tabernaren parera heltzen direnean 90°ko kurba egin behar dute Andaluzia kalea hartzeko. Hori izaten da unerik korapilatsuena eta hortxe gertatzen dira eroriko eta istripurik handienak.

Andaluzia kalea oso aldapatsua da eta laburra den arren oso abiadura handia hartzen dute goitibeherek. Baina Andaluzia eta San Antonio etorbidea elkartzen dituen errotondan balaztatu behar dute ahal duter bezala Polikiroldegira zuzen ez joateko, eta hori ere oso arriskutsua da.



Arazoak  
Andaluzia  
kalean



San Antonio  
etorbidea  
hartuta hel-  
muga hurbil  
egongo da,  
eta sariak  
goitibehera-  
larien zain.



# URTEKO ARGAZKIEN BILDUMA

Amaitzear dagoen ikasturte honek argazki polit hauek utzi dizkigu:



Agate Deunari abestu genion



Elurak hiruzpalau aldiz hartu zuen Bekosolo parkea



Aitorrek munduari bira egin zion, eta kontatzera etorri zitzaigun



Inauteriak ere ospatu genituen



Miren eta Roberto, triki-poteoan jaun eta jabe



Tupper sex tailerreko ikusmina



Jubilatuen taldea, bazkaria prestatzen



Gula entsalada goxoa



Patatak errioxar erara  
(ez zituen berak prestatu, ez pentsa)




Bazkari ederra !!



Bazkalostean, baltsean

Zebarri berri honetan euskal musikarien lanak gomendatuko dizkizuegu. Pop, jazz, folk, punk, reggae...estilo guztietara zabalik egongo dira gure gomendioak. Hona hemen ale honetakoak:



### **Txuma Murugarren – Marjinalia (Gaztelupeko hotsak)**

Belarrietarako gauza berriak eskaintzen dizkigu beti Txuma Murugarrenek. Sasoi Ilunak taldeko abeslari ohiak Marjinalia diskoa egin du oraingo honetan, seguru aski, puta, zurrutari eta gaizkile oro buruan dituela. Lan hori entzunda, Parisko Moulin Rouge kabaretera garamatza egileak, eta segundo batez lortzen du entzuleak eskua altxatuta zerbitzariari anisa eskatzeko keinua egitea. Bigarren entzunaldia eskatzen duen disko honen letrak musikadun poesia bihurtzen dira sakonduz gero. Horretarako, Txumak berak egindako letrak bai Anjel Errorenak bai eta Xabi Bordarenak agertzen zaizkigu. Kabaretari doinurik goxoen ateratzeko, Rafa Rueda edo Rafa Aceves musikariak ditu lagun Txuma Murugarrenek, *L'enfant Terriblek*



### **Bizardunak – Bizardunak (Brian's Records)**

Lehenengo, izotza, azukrea, ardo gorri nafarra eta whiskia bota. Gero, folk eta punk musika estiloak uztartu. Amaitzeko, eta jalkitzen utzi barik, gehitu zoramenezko zuzenekoa. Kokeleratik bertatik edan trago luze bat eta horixe dugu Bizardunen filosofia: hedonismoa, komunismoa, juerga eta alkohola, alegia. Oso goiz ailegatu dira nafar ultraortodoxo hauek euskaldunon burmuinetara eta erraz asko bete dituzte Euskal Herriko jaietako hamaika plaza. Letra zirikatzaileak dira nagusi estreinako lan honetan. Bizardunek bazkalostean abesteko aproposak diren kantak sortu dituzte eta seguru aski, urte gutxiren buruan lagunekin abestuko ditugu Saltzen, Saltzen edo Agur Xiberuaren ostean. Hori bai, The Pogues Irlandako taldeko usaina darie. Beharbada, gehiegi...

## EUSKAL ZINEMA


Euskal zinema ere zuen esku jarri nahi dugu. Zoritxarrez euskarazko filme gutxi egiten da eta arazo handiak izaten direlako, baina zorionez, maiatzean zinema aretoetako istorio hunkigarri bat jasotzen duen filma estreinatu da: "80 egunean". Jose Mari Goenaga, Jon Garaño idazleak idatzi dira filma idatzi eta zuzendu dutenak. Aktoreen artean honako hauek daude: Itziar Aizpuru, Mariasun Pagoaga, José Ramón Argoitia, Ane Gabarain, Zorion Agileor, Patricia López



Axun, 70 urteko emakumea, alabaren senar ohia zaintzen joan da ospitalera. Bere ezusterako, ondoko gaia zaintzen duen emakumea Maite da, nerabezaroko laguna, 50 urte luzetan ikusi ez duena. Gaztetan zuzen kimika oraindik bizirik dagoela somatuko dute berehala. Axolagabe gozatu eta dibertitzen dira elkarrekin, Axun Maite lesbiana dela jabetzen den arte. Bere sentimenduetan dudatan jarriko ditu Axunek: zer jarraitu, burua edo bihotza.

## EUSKAL LITERATURA


Euskal literaturari ere txoko bat eman nahi izan dio Susak argitaratu berri duen Haragizko amoreak, Omar Nabarroren olerki liburu berria ekarri nahi izan duen asko gustatu zaigulako.



Amodiozko poemak dakartza liburu honek. Erotismoaren gain senideenganako maitasuna ere lantzen du. 25 urte dira oraintxe Edorta Jimenezek bere lehendabiziko liburuak plazaratu zuela, Omar Nabarro izenez sinatu horixe baita poesian beti erabili izan duen izena. Seigarren poema liburuak duzu.

Liburuko zenbait poema kantú bihurtu dituzte Doc Deseo taldeak, Rafa Ruedak eta Zebarriko gure disko kuttunen atalera ekarri dugun Txuma Murugarrenen

Zebarri berri honetan euskal musikarien lanak gomendatuko dizkizuegu. Pop, jazz, folk, punk, reggae...estilo guztietara zabalik egongo dira gure gomendioak. Hona hemen ale honetakoak:



**Txuma Murugarren – Marjinalia (Gaztelupeko hotsak)**

Belarrietarako gauza berriak eskaintzen dizkigu beti Txuma Murugarrenek. Sasoi Ilunak taldeko abeslari ohiak Marjinalia diskoa egin du oraingo honetan, seguru aski, puta, zurrutari eta gaizkile oro buruan dituela. Lan hori entzunda, Parisko Moulin Rouge kabaretera garamatza egileak, eta segundo batez lortzen du entzuleak eskua altxatuta zerbitzariari anisa eskatzeko keinua egitea. Bigarren entzunaldia eskatzen duen disko honen letrak musikadun poesia bihurtzen dira sakonduz gero. Horretarako, Txumak berak egindako letrak bai Anjel Errorenak bai eta Xabi Bordarenak agertzen zaizkigu. Kabaretari doinurik goxoen ateratzeko, Rafa Rueda edo Rafa Aceves musikariak ditu lagun Txuma Murugarrenek, *L'enfant Terriblek*



**Bizardunak – Bizardunak (Brian's Records)**


Lehenengo, izotza, azukrea, ardo gorri nafarra eta whiskia bota. Gero, folk eta punk musika estiloak uztartu. Amaitzeko, eta jalkitzen utzi barik, gehitu zoramenezko zuzenekoak. Kokeleratik bertatik edan trago luze bat eta horixe dugu Bizardunen filosofia: hedonismoa, komunismoa, juerga eta alkohola, alegia. Oso goiz ailegatu dira nafar ultraortodoxo hauek euskaldunon burmuinetara eta erraz asko bete dituzte Euskal Herriko jaietako hamaika plaza. Letra zirikatzaileak dira nagusi estreinako lan honetan. Bizardunek bazkalostean abesteko aproposak diren kantak sortu dituzte eta seguru aski, urte gutxiren buruan lagunekin abestuko ditugu Saltzen, Saltzen edo Agur Xiberuaren ostean. Hori bai, The Pogues Irlandako taldeko usaina darie. Beharbada, gehiegi...



# INTERNET ATARIA


Gaur egun oso beharrezkoak, ia ezinbestekoak dira ordenagailuak. Internet atari honetanlagunduko dizuegu zuen ordenagailuekin euskaraz funtzionatzeko tresnak, baita euskara ikasten laguntzeko tresna batzuk ere.

Hasteko, zuen sistema eragilea edo operatiboa Windows baldin bada, oso erraza da euskaraz jartzea. Horretarako Googlen edo beste bilatzaile batean idatzi: **WINDOWS EUSKARAZ** eta agertzen zaizun lehenengo helbidera joan. Hantxe azalduko dizkizute egin beharreko urrats guztiak. Hemen, ikusten duzunez, euskaltegian euskaraz dugu:



Eta sistema eragileaz gain, dokumentuak sortzeko erabiltzen dugu ordenagailua; testu dokumentuak, datu baseak, kalkulu orriak eta abar. Bada, horiek ere euskaraz erabil ditzakegu. Bi modu ditugu horretarako.

*Bata, Open Office software askea doan deskargatu eta instalatzea hemendik <http://eu.openoffice.org/>*



*Bestea, Windowsekin egin dugun bezala, Googlen idatzi behar dugu **OFFICE EUSKARAZ** hitzak, eta erabili.com atariaren bitartez helduko gara Microsoft Office software euskaratzeko orrialdeara*

**BAT ETA BATZUK-EN DEKLINABIDEA**

*Bat* hitzak, leku-denborazko ez diren kasu-atzizkietako bat hartzen duenean, deklinabide mugagabearen arabera hartzen du. Hauek dira, beraz, formak:

*bat batek bati baten batekin batentzat batez*

Dena dela, *beste* hitzaren agerraldi mugatu baten eraginpean dagoenean, ez bestela, *bat*-ek deklinabide mugatuko formak, hau da:

*bata batak batari bataren batarekin batarentzat bataz*

hartzeko joera agertzen du literatura tradizioan. Testu zaharretan beti gertatzen zen hori. Gaur egun bi kasu bereizi behar dira: a) *bat* bakarrik agertzen denean, eta b) determinatzaile gisa —hots, izen baten ondoren— agertzen denean.

*bata ona da baina bestea txarra, batak edo besteak irabazi, berdin zait, batari nahiz besteari emateko, batarengan eta bestearengan.*

*Bat* hitzak, plurala, -zu atzizkiaren bitartez egiten du.

**Hortaz, literatura tradizioaren bilakaera hau gogoan harturik, leku-denborazko kasuei dagokienez, forma hauek erabakitzen ditu Euskaltzaindiak euskara baturako (kontuan izan *bata*, *batak* eta halakoak *beste* hitzaren agerraldi mugatu baten eraginpean bakarrik erabiltzeko direla):**

Mugagabea	Mugatua	Plurala
Bat	Bata	Batzuk
Batek	Batak	Batzuek
Bati	Batari	Batzuei
Baten	Bataren	Batzuen
Batentzat	Batarentzat	Batzuentzat
Batekin	Batarekin	Batzuekin
Batez	Bataz	Batzuez
Batean	Batean	Batzuetan
Batetik	Batetik	Batzuetatik

# Etxebarritik Euskal Herrira

Euskal Herri gurean leku eder-ederrak daude, bai eta kontraste nahikotxo ere (mendia, itsasoa, berdea, lehorra, jendea...) umekin joateko. Hala, oraingo honetan, hiru aukera poposatuko dizuegu Euskal Herriko parajerik politenatarikoak ezagutzeko: Uribe Kosta, Enkarterriak eta Bortziriak eta mugaldea.

Anima zaitetze eta ezagutu Euskal Herria!




## Uribe Kosta



Nola joan: Metroz ala autoz. Etxebarritik Plentziara 30-45' dago eta Plentziatik Gorlizko farora oinez, beste 30-45' gehiago.

Zer ikusi: Faroa (bertatik bista zoragarriak ikusi ahal dira) eta bidean dagoen natura itzelezkoa da.

Non bazkaldu: Gorlizko hondartzaren parean pinudi ederra dago eta bertan, bokatak edo barbakoa egiteko aukera paregabea dago. Gainera, zibuak ere badaude umek jolasteko








## Enkarterria

Karrantzako harana mendi, baso eta zelai artean dago.

Nola joan: Euskotrenez, autoz edo autobusez  
Zer ikusi: Pozalagua kobazuloak, Karpin parke zoologikoa, eta menditik ikusten den Lanzasagudas herria.

Non bazkaldu: Haranaren erdialdean Kontxa izeneko herritxoa dago eta bertan, hainbat jatetxe franko dago. Adibidez, eguneko menua duen Nino jatetxea. Jaiak: Irailaren 17an dira Karrantzako jaiak eta erromeria batez ospatzen dute "Ntra Sra del Buen suceso" eguna.



## Bortziriak eta mugaldea

Nola joan: Ia derrigorrez autoz joan behar da eta 2 orduko bidaia dago

Zer ikusi: Larrun mendia eta bertara igotzen den tren txikia.

Tren txikian egiten den bidaia xarmaz beterik dago benetan. Hogeita hamar minutu inguru irauten du bidaiak eta denbora horretan 764 m igotzen da. Hala, Euskal Herriko zazpi lurraldeak ikusi ahal dira gailurretik, bai eta itsasoa eta mendiak ere. Saran kobazulo ederrak ikusteko aukera paregabea dago. Non bazkaldu: Saran bertan jan ahal da edozein jatetxetan eta Larrunen tontorrean hainbat jatetxe dago jateko.

Natura: Hamabost zuhaitz mota desberdin dago Larrunen, eta horretaz gain pottokak, putreak eta bildotsak.



## KALABAZIN KREMA

200 g. kalabazin gordin  
70 g. porru gordin  
70 g. tipula gordin  
10 g. La Vaca que Ríe Apericubo gastatxoak  
10 cl. oliba olio  
Ura  
Gatza  
Perrexil apur bat

### PRESTAKUNTZA

- Lapiko batean ur pixka bat jarri eta bertan kalabazina, porrua eta tipula egosi.
- Egosi ondoren, gaztatxoak gehitu eta irabiagailuaz irabiatu.
- Bero zerbitzatzen dugu eta perrexilaz hautseztatzen dugu.

## TXINTXORTA BETEA

### *barrukoa*

100 g. urdai  
100 g. tipula gordin  
100 g. piper handi  
100 g. tomate gordin  
2 koilarakada oliba olio

### *orea*

300 g. irin berezi  
200 ml. esne berezi  
6 koilarakada oliba olio  
1/2 koilarakada ardo zuri  
Koilarakada bat gatz



## **barrukoaren prestakuntza**

- Zartaginean, zatitxoetan egindako urdaia frijitu.
- Txikitutako tipula gehitu eta gorritu arte su bigunean utzi.
- Jarraian, zatitutako piperra eta tomatea gehitu.
- Berriz ere su bigunez berotu eta hozten utzi.

## **orearen prestakuntza**

- Ontzi batean irina, olio, esnea, ardoa eta gatza isurtzen ditugu, ore homogeneo bat lortu arte ondo nahasiz.
- Ondoren, orearekin bi bola berdin egiten ditugu. Hauetatik bat hartu eta labeko erretiluan ondo zabaltzen da, aurretik egindako betegarria gainean. Bigarren bola ere zabaltu egiten da eta betegarria ondo estaltzen dugu, batik bat alboetatik.
- Txintxorta olioaz busti, labean kolorea har dezan.
- Bukatzeko, aurreberotutako labean sartu txintxorta, 180°tara, 20-30 minututan bertan utziz.

## **SAGAR PIPORROILOAK**

250 g. zuritutako eta zatitutako Golden sagar  
25 g. azukre  
100 ml. esne berezi  
25 g. irin berezi  
20 g. Rebocina  
Anis piskatxo bat  
Oliba olio

### ***prestakuntza***

- Anisa eta azukrea bateratu, eta lortutako nahasketa honetan sagarra beratu.
- Rebocina esne bereziaz prestatu, ore lodi bat lortuz.
- Sagarr zatiak ondo lehortu behar ditugu, irin berezitik pasatu eta jarraian Rebocina-z bildu.
- Zartaginean olio bero dagoenean, sagarr zatiak bertan frijitzen ditugu eta ondoren azukre glass-a hautseztatzen diegu gainerik.

eta



# Horoskopoa



## **ARIES** (Martxoaren 21etik Apirilaren 20ra)

*Amodioa:* Etxetik ateratzen ez bazara, ez duzu inoiz ligatuko!!

*Dirua:* Joka ezazu loterian; diru asko irabaziko duzu eta!.

*Osasuna:* Kontuz txokolatearekin!

*Asteko eguna:* Astelehena



## **TAURO** (Apirilaren 21etik Maiatzaren 20ra)

*Amodioa:* Asteburuan arrakasta handia izango duzu, aurpegia musuz beterik joango zara etxera.

*Dirua:* Ez ezazu loterian joka!!

*Osasuna:* Hainbeste alkohol edaten baduzu, gibela izorratuko zaizu!

*Asteko eguna:* Asteartea



## **GEMINIS** (Maiatzaren 21etik Ekainaren 20ra)

*Amodioa:* Kontuz! Zure bikoteak engainatuko zaitu, zain ezazu ondo!!.

*Dirua:* Kontratu on bat sinatzeko aukera daukazu.

*Osasuna:* Etxean geratzen bazara, ez duzu katarrorik harrapatuko.

*Asteko eguna:* Osteguna.



## **CANCER** (Ekainaren 21etik Uztailaren 20ra )

*Amodioa:* Badakigu oso zoroa zarela, kontuz gauarekin! Ez atera etxetik!

*Dirua:* Dena txarto egingo duzu, diru gutxiago irabaziko duzu.

*Osasuna:* Zezen baten osasuna daukazu, aprobetxa ezazu!

*Asteko eguna:* Ostirala



## **LEO** (Uztailaren 21etik Abuztuaren 20ra.)

*Amodioa:* Momentua heldu da, zure bizitzako neska aurkituko duzu!

*Dirua:* Kontuz diruarekin, momentu hobek helduko dira.

*Osasuna:* Erretzeari utzi, zure eztarriak eskertuko dizu eta!

*Asteko eguna:* Ostirala.



## **VIRGO** (Abuztuaren 21etik Irailaren 20ra)

*Amodioa:* Zure bikotea ondo zaintzen ez baduzu, ihes egingo dizu!

*Dirua:* Loteria tokatuko zaizu!

*Osasuna:* Hotzetik babestu, bestela neumonia bat harrapatuko duzu.

*Asteko eguna:* Asteazkena



## **LIBRA** (Irailaren 21etik Urriaren 20ra.)

*Amodioa:* Ligatzeko klaseetan apunta zaitetz!

*Dirua:* Espero ez duzun diru bat jasoko duzu.

*Osasuna:* Denetik jaten ez baduzu, zure urdaia gaixotu egingo da.

*Asteko eguna:* Larunbata.



## **ESCORPIO** (Urriaren 21etik Azaroaren 20ra)

*Amodioa:* Ezkutuko mireste batek, larrosak bidaliko dizkizu.

*Dirua:* Zure lana ondo egiten ez baduzu, nagusiak bota egingo zaitu!

*Osasuna:* Erretzeari uzten ez badiozu, biriketako arazoak izango dituzu.

*Asteko eguna:* Larunbata



## **SAGITARIO** (Azaroaren 21etik Abenduaren 20ra)

*Amodioa:* Larunbatean zinemara joaten bazara, zure bizitzako amodioa aurkituko duzu!

*Dirua:* Dirua ez da arazoa. Zer da Krisia?

*Osasuna:* Spa-ra joango zara masajeak hartzera.

*Asteko eguna:* Larunbata



## **CAPRICORNIO** (Abenduaren 21etik Urtarrilaren 20ra.)

*Amodioa:* Aurrean daukazu baina ez zara konturatzen!

*Dirua:* Kontrolatu zure dirua, ez edan hainbeste kubata.

*Osasuna:* Aste ona izango da osasunarentzat.

*Asteko eguna:* Igandea.



## **ACUARIO** (Urtarrilaren 21etik Otsailaren 20ra )

*Amodioa:* Ez saiatu irakaslearekin ligatzen, horrela ez duzu gaindituko eta

*Dirua:* Ez kezkatu, ez duzu diru arazorik edukiko, herentzia bat jasoko duzu.

*Osasuna:* Buruko minik badaukazu, hartu aspirina bat!

*Asteko eguna:* Larunbata



## **PISCIS** (Otsailaren 21etik Martxoaren 20ra )

*Amodioa:* Pertsona berezia aurkituko duzu. Lagun batek zita bat eskatuko dizu.

*Dirua:* Aste honetan posiblea da lana lortzea.

*Osasuna:* Kontuz esfortzuekin, zure bizkarra ez dago tontakerietarako!

*Asteko eguna:* Igandea



## Asmakizunak

### 1 - NOR NAIZ NI?

- a) Denek gorrotatzen naute.
- b) Nirekin errealitatera itzultzen zarete.
- c) Etxe guztietan nago.
- d) Goizero "jotzen" nauzue.
- e) Kanpaia bezalako soinua ateratzen dut.
- f) Umore txarrez altxatzen zarete.

### 2 - ZER DA?

- a) Urtero urtero martxan ipintzen da.
- b) Neska eta mutilak zoratu egiten dira.
- c) Udaberrian hasten da eta uda ondoren bukatzen da.
- d) Bere emaitza hondartzan ikusten da.
- e) Bere erruagatik gutxi jaten dugu eta bikini berri bat erosten dugu.

## Hizki-zopa

Aurki itzazu Bizkaiko 12 herriren izenak

A	K	I	R	R	A	B	R	G	G
A	A	O	I	R	U	A	S	A	B
A	I	G	N	U	M	E	I	L	A
R	A	B	D	D	O	A	R	D	I
Z	A	L	L	A	A	A	I	A	D
O	E	M	R	E	B	R	M	K	E
E	R	R	O	G	I	A	R	A	B
B	A	R	A	K	A	L	D	O	B
O	K	Z	O	R	O	A	Z	A	A
A	B	B	E	B	R	A	K	B	A
O	B	U	L	B	L	I	D	A	M
O	B	E	A	R	O	R	B	R	Z



# UDAKO EUSKARA IKASTAROAK **TRINKOAK**

- » ETXEBARRIN edo BILBON
- » Maila guztiak
- » 5 orduko ikastaroak
- » UZTAILEAN-ABUZTUAN-IRAILEAN  
(uztailean eta irailean arratsaldez ere)

ETXEBARRI o BILBAO <<

Todos los niveles <<

Cursos de 5 horas <<

JULIO - AGOSTO - SETIEMBRE <<

(julio y septiembre tambien por la tarde)

## BARNETEGIAK Arantzazu/Lezaun

2. eta 3. maila  
15 eguneko ikastaroak  
Egunean 8 ordu  
UZTAILEAN-ABUZTUAN-IRAILEAN

2º y 3º nivel  
Cursos de 15 días  
8 horas al día

JULIO-AGOSTO-SEPTIEMBRE

UDALETXEAK  
DIRUZ LAGUNDUTA  
MATRIKULAK EKAINEN

SUBVENCIONADOS  
POR EL AYUNTAMIENTO  
MATRICÚLATE EN JUNIO



Etxebarriko  
EUSKALTEGIA

Bekosolo parkea z/g  
Etxe horia / Casa Amarilla  
Tel/Fax 94 426 28 02  
[etxebarri@euskalnet.net](mailto:etxebarri@euskalnet.net)



VLIBARRI  
EUSKALTEGIA

Tel. 94 416 24 72